

MASKARADA ATHARRATZEN

Aurtengo lehen maskarada urtarrilaren 13an izan zen, eta urtero bezala, Zuberoa alderanzko bidea egiteari ekin nion. Iniaki Martiartu eta Manu Gojenola lagun bizkaitarrak goiz-goizean Urruñara etorri zitzaizkidan bila eta bederatzi eta erdietarako Sorholüzzen aparkatu genuen. 2008ko maskarada Atharrazte-Sorholüzeko eta Aloze-Ziboze-Onizegaineko gazteek jokatzen zuten. Hogeita hamar bat gazte osora.

Lehen barrikada Sorholüzeko hilerri ondoko plazatik ilkitzekoa¹ zen, eta gu autotik jaitsi ginenerako bertan zeuden, ateratzeko prest, maskaradako pertsonaia miresgarri guztiak: bi zamalzain gorri, entseinaria, kantinierra, kaüterak, marixalak, xorrotzak, katüzaina, Pitxu gogoangarria... baita bühame kokinak² ere, eta haiekin batera bi xirulari eta atabalari bat. Azken hauek ordurako bihurrikeriak egiten hasita zeuden. Haietako bizpahiru errepidean barrena iragan nahian ari zen auto baten gainean jesarrita zeuden, bi-edo kapotean eta hirugarren bat autoaren sabaian eserita, zangoak aurreko kristala estaliz zintzilik zituela. Gidariak, berrogeita hamar urte inguruko gizon txapelduna, pazientzia handiaz itxaroten zuen txantxaren amaiera inolako kexurik egin gabe. Maska-

¹ Ilki: Atera, irten.

² Kokin: Bihurria, maltzurra.

radaren tenorea zen eta maskaradan dena -edo ia dena- librea da.

Berehalaxe, lehen dantzak hasi ziren. Jendea ingurura hurbiltzen hasi zen. Jende aunitz zegoen lehen barrikada hartan. Sorholüzeko plazatxo hartatik mendi gailur guztiak elurrez jantzirik ikus genitzakeen. Hurbilen zegoena Arhanemendi zen, gaur egun Maidalena izenez ezagunagoa dena.

Horma baten kontra ezarririk, zizka-mizkez eta edariez beteriko mahaiak zeuden. Beraien inguruan, lehen barrikada zabaltzeko pronto, bost bat gizon-emakume. Badirudi lehen egiazko barrikadak jartzen zituztela eta hortik datorkiela izena. Egun, dantzatzuz, kantatzuz, janez eta edanez zabaltzen dituzte. Ez al da hori euskaldunon berezko filosofia? Dantzariak amaitu orduko, barrikadakoak jan-edariak eskaintzen hasi zitzaizkigun. Guk kafetxo eta bizkotxo puska bana hartu genituen gure barrenak berotzeko. Segituan, lehen zurrutadekin batera, Zuberoko lehen kanthore³ zoragarriek Sorholüzeko aire izoztua urratu zuten. Tenperatura zazpi gradu ingurukoa zen.

Aurpegi ezagunen artean Allande Sokarros kazetari zuberotar famatuarena ikusi nuen. Elkar agurtu genuen. Hortik aurrera elkarrekin ibili ginen. Allandek izugarri ongi ezagutzen ditu Zuberua eta bertako kultura. Bide-gidari edo zizerone hoberik ezin genuen aurkitu. Berak adierazi zigun Atharratzen eta Sorholüze 1859. urtean bildu zirela udalerrri bakarra osatzeko, eta batasun hori errazteko eliza, udaletxea eta horrelako eraikin ofizialak bien arteko muga aldean eraiki zituztela. Eliza eta Herriko Etxea Sorholüzen daude, mugatik oso hurbil, eta legar-etxea⁴ Atharratzen, mugatik zenbait kilometrotara kokaturik.

Hamar minutu inguru lehen barrikadan eman ondoren, *Karriken ibiltia* delakoari hasiera eman zioten, hau da, karrikaz karrika, etxez etxe eta barrikadaz barrikada horrela ibiltzeari, alegia.

³ Kanthore: Kantua zubereraz.

⁴ Legarrak: Herriko zergak. *Les impôts locaux*. zubereraz.

Bigarren barrikada hur⁵ samar zen, errepidearen eskuin aldetik sarturik dagoen desbideraketan kokaturiko *Les plataners* izeneko ostatu famatuaren aitzinean. Allandek kontatu zidanez, handik pasatzen zen Pauetik Maulerako joan-etorria egiten zuen *Trein ttipia*⁶. Orduko trenbidearen gainean egina dago gaurko desbideraketa. Geltoki zaharra ere han dago zutik, etxe bihurturik. Jabe berriek ezarri dioten izenak *trein ttipiaren* etorreraz ohartzen gaitu: *Heltü niz*⁷.

Hirugarren barrikada eliza ondoko Haztoi ardo-biltokiaren aitzinean zegoen. Barrikadako mahaiak bi barriken gainean ezarrita zeuden. Allandek azaldu zidanez, garai batean haztoitarrek *Haütüa* izeneko ardoa nahastekatzen eta saltzen zuten. Barrikadaren gibel aldean, zenbait ahaideren artean Dominika Haztoi zegoen. Xorrotzek ohiko agur-bertsoaz agurtu zituztenean, Dominikak arrapostüa eman zien berak ondutako bertsetez⁸. Horra hor:

*Xorrotx obien partez
hunki jin oroer.
Ihauteko sasua
egün delarik hasten,
Aloze Atharratze
alkarri jüntatzen.
Subetatzen deiziegü
profeita dezazüen.*

*Maskadaren txoriak
Sorbolüzen dü habia,
dantzari, tabalari, xorrotx
agitzen beitira.
Ahatze gabe ere*

⁵ Hur: Hurbil.

⁶ Trein: Trena Iparraldeko hiru lurraldeetan.

⁷ Heltü niz: Banator zubereraz.

⁸ Bertset: Bertsoa.

*andere eijerra,
fierki zure ürhatsetan
gure Dominika.*

Seigarren barrikada Agosti Xaho zuberotar handia izan zenaren jaiotetxe aurrean ikusi genuen. Gaur ostatua da eta aurrealdean Xahoren omenez ezarritako harlauza ikus daiteke. Jende artean, Maddi Oihenart Barkoxeko kantari handia ikusi eta agurtu genuen. Ordurako bühameak⁹ bero-bero zebiltzan, eta beraiengan ohikoa den bihurrikeria haietako batez, bospa-seik jauzi egin zuten batera ostatuko kanpoaldean dagoen zurezko mahaietako baten gainera. Lau hankak hautsita baratu¹⁰ zen. Eta horrela hamalau barrikada hautsi arte. Azkena Atharratzeko arkupeetako plazan izan zen. Kaüterek, Pitxu buru zutela, kaleko zakarrontzi gurpildun handi horietako batean sartu, eta dantzarietz gozaten plaza mukuru betetzen zuen jendetzaren aurka bideratu zuten. Jendea, algara handien artean, baztertu eta ibilgailua plaza erdira iritsi zen inolako triskantzarik eragin gabe. Amaitzeko, *moñeinak* eta *aintzina pika* dantzatzatuz agurra eman genion goizeko saioari. Ordu-bat eta erdia zen. Bazkaltzeko tenorea¹¹.

Jende artean topatu gintuen Jüje Etxebarne lagunak bere etxera bazkaltzera gonbidatu gintuen, eta horrela Atharratzeko Karrikartearen izeneko etxerantz abiatu ginen. Jüjek eskainitako Arabako Errioxako ardo beltz on batez zintzurra busti genuen eta berak prestaturiko eltzekari¹² bero batez ordurako karroindaturik¹³ genuen barrena berotu. Lagunen arteko solasak denon bihotza piztu zuen. Jüjek bühameen hitz jokoaren erabiliz brindisa egin zuen: *Zuen osagarriari eta ene zabagiari*. Barre artean ardoz beteriko godaletak altxatuz topa egin genuen. *Txin txin!*

⁹ Bühame: Ijitoa, motxailea. Maskaradako pertsonaietako bat.

¹⁰ Baratu: Geratu.

¹¹ Tenore: Garaia, ordua.

¹² Eltzekari: Barazki zopa.

¹³ Karrondaturik: Hormaturik, izozturik.

Ez genuen luze elestatzeko¹⁴ astirik, hiru eta erdietarako At-harratzeko arkupeetako plazan egon behar baikenuen maskaradaren arrastiriko¹⁵ saioa ikusi ahal izateko. Iritsi ginenerako plaza jendez gainezka zegoen. Gero gerokoa, ohiko dantzak, kantuak eta inaute antzezpenak. Denek biziki ongi bete zuten beren jarduera.

Baina aitzina egin aurretik, azter dezagun, azaletik bada ere, zer eta nolakoa den Zuberoako maskarada. Definizio bat emateko orduan, esan beharra daukagu, maskarada Zuberoako inauteriaren ikusgarririk ospetsuena eta zabalduena dela, antzinatik datorren inaute berezia, eta inauteria guztietan bezalala, kritika da bere ezaugarririk nabarmenetako bat. Adituek aunitzetan esan dutenez, maskarada zuberotarren inaute garaiko kritika kantatu dantzatua da. Bere partaideak herri bateko gazteak izaten dira, eta lehen eta azken jelkaldia –emanaldia– beraien herrian egiten badute ere, igandez igande ibiltzen dira maskarada Zuberoako herrietara eramaten. Aurtan, osora hamabost jelkaldi izango dituzte. Dantza-maisu bat izaten da bost bat urtetan gazteak Zuberoako dantzetan trebatzen dituen, eta beste batek xorrotzak trebatzen ditu bertsetak egin eta kanta ditzaten. Aurtengo maskaradetako dantza-maisuua Jaimo Arhauzet izan da, Bixente Godermen xorrotxen bertsoen eta kantuen doinuak apailatu dituen eta Dominika Haztoi bertsetei hitza jarri diena.

Nolabait esan daiteke maskarada festa eta erritual iniziatikoa dela

Zuberotar gazteentzat, maskaradaren bidez helduen mundura sartzen baitira, eta ordura arte galarazirik ukan dituzten erokeriak egiten baimentzen baitzaie.

Maskaradan euskaldunon manikeismoa, hau da, kontrakoen arteko etengabeko borroka arrunt present dago. Pertsonaiak bi

¹⁴ Elestatu: Hitz egin, berba egin

¹⁵ Arrastiri: Arratsaldea.

taldetan banatzen dira: gorriak eta beltzak. Gorriak euskaldunak dira, jende zintzoa, garai bateko lanbideak ordezkaten dituztenak: perzkinak, ferratzaileak, laborariak, herriko jaun-andereak... Beltzak, berriz, kanpokoak dira, behartsuak, jende kokina, eta etengabeko desafioan ibiltzen dira gorriak zirikatuz. Gorrien artean aintzindariak daude (Txerrero, Gathüzain, Kantiniersa, Zamalzain eta Entseinaria) eta beraiek izaten dira dantzaririk onenak. Hauez gain, Herriko Jauna, Anderea, Laboraria, Laborarisa, marixalak eta kükülleroak. Beltzen artean, berriz, kherestüak (nausi eta mithil), xorrotxak (nausi eta mithil), bühameak, kaüterak (Kabana -kaüter nagusia-, Pitxu, Pupu...) bedezia eta bedezi lagüna.

Aurtengo maskaradan Kabana Handia pertsonaia Ddiddue Arhanzet izan da, Mathieu Tauzin bühame handia, Niko Etxart kantari famatuaren seme nagusia den Txomin Etxart Pitxu eta xorrotxen bikotea Aña Bidalunek eta Xabi Intzagaraik osatu dute.

Eta gorrien eta beltzen arteko gatazka hau aitzakiatzat hariturik, urte osoan aipatu ezin diren esamesak edota egin ezin diren kritikak plazaratzen dituzte. Gaurkotasun handiko gaiak izaten dira, ontsalaz¹⁶, jorratuenak. Herriko jaunak¹⁷, apezak, kontseilariak¹⁸, hautetsiak¹⁹, hede xuriak²⁰... izaten dira aunitzetan kritika horien xede.

Egun osoan zehar errepikatzen diren dantzek erritual kutsua ematen diote maskaradari, karakoil edo barraskilo itxura hartzen duen *brailea* izenekoa garrantzitsuena delarik. Ardoz betetako edalontzi baten inguruan, edota gainean, dantzatzen den *godalet-dantza*²¹ ospetsuak askoren miresmena erakartzen du.

¹⁶ Ontsalaz: Normalean.

¹⁷ Herriko jauna: Alkatea, auzapeza.

¹⁸ Kontseilari: Zinegotzia Iparraldeko hiru lurraldeetan.

¹⁹ Hautetsi: Kargu publikoa.

²⁰ Hede xuria: Jendarmeei Iparraldean ematen zaien goitizena, garai batean uniformearen hede zuri handi bat eramaten zutelako.

²¹ Godalet: Edalontzia, basoa.

Maskarada, euskal inauteria guztiek bezala, neguko solstioarekin hasten da eta udaberriko ekinozioarekin amaitzen, hau da, urtarrilaren erdi aldetik-edo, apirilaren bukaera arte, gutxi gora-behera. 2008koa ere, apirilaren hogeita zazpian, Urdatxeko Santa Grazin bukatzekoa da. Lurraren loaldia eta esnatzea irudikatzen ditu eta hartzak ere bere tokia izaten du. Zorigaitzez, aurtengoan ez da hartzik izan. Hartza euskaldunon animalia totemikoa da, gure arbaso zaharrekin batera, antzinarako aroetan negua leize-zuloetan iragaten zuena. Zuberoan esaten denez, hartza omen da euskaldunon lehen arbaso zaharra.

Heriotza *-negua-* eta arrapiztea²² *-udaberria-* irudikatzen dituen inauteko ikuskizun honetan, urtero errepikatzen den ziklo honen azalpena argiro agertzen zaigu maskarada osoan zehar. Pitxu da horretarako hautatutako pertsonaia. Maskaradaren bukaera aldean Pitxu hiltzen da, itota, beltz guztiek batera bere gainera jauzi egiten dutenean, eta berpizten da bedeziak²³ espantu handiko ebakuntza egiten dionean. Urtero izadian errepikatzen zaigun etengabeko zikloaren irudikapen garbia da. Pitxu berriro piztu ondoren, azken kantu batez ematen zaio bukaera maskaradari.

Atharratzeko maskarada ilunabarreko sei eta erdiak aldera amaitu zen, Niko Etxartek egindako azken kanthore ederraz. *Hou Pitxu hou!*²⁴ errepikatu zuen kantuak, behin eta berriro. Ondoren, *aintzina-pika*²⁵ jendetsu batez azken agurra eman genion 2008ko lehen maskaradari. Denok hotzak geunden, eta hotzetik ihesi nahian, gogo onez sartu ginen azken dantza hartara, hankak eta gorputza berotu zekizkigun.

Zangoak berotu ondoren, barnea berotzeko tenorea iritsi zen. Jendea, maskaradako partaideak barne, plazan dauden

²² Arrapizte: Berpizkundera.

²³ Bedezi: Sendagilea zubereraz.

²⁴ Hou Pitxu hou!: Maskaradaren ohiko garrasia, behin eta berriro, errepikatzen dena.

²⁵ Aintzina-pika: Zuberoako dantza ezaguna.

Les Pyrénées eta *Piellenia* izeneko ostatu bietara sartu zen. Gu azken horretara sartu ginen. Jendeak eta Zuberoako kantu xarmangarriek taberna gainezkatzen zuten. Barruan ez zegoen zigarrera usainik, urteberriarekin batera, leku publikoetan erre-tzea debekatzen duen lege berria indarrean baitzegoen. Erre-tzailerik porrokatuenak ostatuaren kanpo aldean zeuden, esku batean edaria eta bestean zigarroa zituztelarik.

Guk kafe bana edan genuen eta lagun zuberotarrez agurtu orduko, etxerako itzultbideari lotu gintzaizkion.

Agur Xiberoa
bazter güzietako
xokorik ederrena!

Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2008ko urtarrilaren 17an.